

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

#### 1977

*AGINDUA, 2012ko apirilaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, 2011ko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2011ko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteek eraginpean hartutako langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dituen otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duena.*

1783/2011 Errege Dekretuak aldatzen duen otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuak Sistemas de Instalaciones de Telecomunicaciones, SA (Sintel) enpresari baimendutako 2011ko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2011ko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteek eraginpean hartzen dituzten eta langabezia-egoeran dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dituen otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretua.

Aipatutako Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, laguntza horiek lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren eremuan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egindako kudeaketaren eskualdaketa beren gain hartu duten autonomia-erkidegoek kudeatuko dituzte, betiere Errege Dekretuan eta autonomia-erkidegoek beren antolaketa-berezitasunen arabera kudeaketa egikaritzeko ematen dituzten arauetan ezarritakoaren arabera.

Transferentzien Batzorde Mistoak 2010eko urriaren 28an egindako bileran eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeko Erabakia hartu zuen lan-arloko legeria lan-eremuan, enplegu-eremuan eta enplegurako lanbide-prestakuntzaren eremuan egikaritzeari dagokionez. Aipatutako akordioa azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretu bidez eta azaroaren 9ko 289/2010 Dekretu bidez (Eusko Jaurlaritzarena) onartu zen.

Eskualdatutako eginkizunen eta zerbitzuen kudeaketa Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak –Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako erakunde autonomoak– hartu zuen bere gain.

Agindu horren bitartez goian aipatutako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden eta enplegu-eskatzaile gisa Euskal Autonomia Erkidegoan inskribatuta dauden langileei laguntzak emateko prozedura arautzen da, 196/2010 Errege Dekretuaren aurreikuspenak antolaketa-errealitatera eta Euskal Autonomia Erkidegoko berezko diru-laguntzen araudira egokituz.

Azaldutakoa kontuan hartuta, indarreko legerian esleitutako eskumenen eta Lanbideren Administrazio Kontseiluaren proposamenaren arabera, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Agindu honen xedea 2011ko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2011ko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteek eraginpean hartutako langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dituen otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura arautzea da, eta aipatutako errege-dekretua abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuak aldatzen du.

2.– Agindu honetan aurreikusten dena laguntza jasotzeko aipatutako Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzak betetzeaz gain, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile, ez-okupatu, gisa inskribatuta daudenei diru-laguntzak emateari aplikatuko zaio.

2. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Diru-laguntza berezia, eta, hala badagokio, hitzarmen berezia Gizarte Segurantzarekin finantzatzen bideratutako zenbateko gehigarria jasotzeko eskubidea aitortzeko eskabideak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan Zerbitzu Zentraletan eta Lanbideren Enpleguko Lurralde Bulegoetan aurkeztu beharko dituzte interesdunek, <http://www.lanbide.net> webgunean eskuragarri egongo den eredu normalizatuaren arabera (ikus eranskina).

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskabide horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen nortasun-agiria.

b) Hirugarren interesdunaren datu-altako fitxa, interesdunak eta dagokion banku-erakundeak behar bezala sinatuta eta zigilatuta, hala badagokio.

c) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako ziurtagiria, kontribuzio-mailako langabeziagatik prestazioa aitortzeari eta agortzearen ondoriozko azkentzeari buruzkoa. Prestazio hori jasotzeko eskubiderik izan ez bada, horren inguruko ziurtagiria.

d) Lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua.

e) Zerga-betebeharrei dagokienez egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

g) 196/2010 Errege Dekretuaren 5 bis artikuluan aurreikusitako hitzarmen berezia finantzatzeko zenbateko gehigarria eskatzen bada, hitzarmena emateko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorak emandako Ebazpenaren kopia.

Paragrafo honetako c) eta d) ataletan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu ordez paragrafo horietan aipatzen den informazioa lortzeko eskabide-orrian azaltzen den baimena eman dakioke Lanbideri.

3.– Besteren kontura edo norberaren kontura lanen bat egin delako, 196/2010 Errege Dekretuaren 5.7 artikuluan aurreikusitako etenaldia igaro ondoren, diru-laguntza berriz jasotzen hasteko eskaera egiten bada, lana azkendu dela edo jarduera amaitu dela eta hori norberaren borondatezkoa ez dela izan egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dira: kaleratze-gutuna, gizarte-segurantzaren erregimeneko baja-agiria eta JEZn emandako baja autonomoen kasuan.

4.– Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira edo derrigorrez aurkeztu beharreko agiriekin batera (aurreko paragrafoan jaso direnak) aurkeztu ez badira, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta agindutako hori egiten ez badu eskabideari uko egin diola ulertuko dela adieraziko zaio horretarako emandako eta jakinarazitako ebazpen bidez.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Diru-laguntza berezia jasotzeko eskubidea aitortzeko eskaera aurkezteko epea hilabetekoa izango da agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe

horretan bertan Gizarte Segurantzarekiko hitzarmen berezia finantzatzera bideratutako zenbateko gehigarria lortzeko diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu beharko da, betiere hitzarmena agindu hau EHAAan argitaratzen den eguna baino lehen edo egun berean sinatu bada.

2.– Gizarte Segurantzarekiko hitzarmen berezia agindu hau EHAAan argitaratu ondoren sinatzen bada, epea hilabetekoa izango da sinatzen denetik zenbatzen hasita.

3.– 196/2010 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren kasuan, hots, langabeziagatiko kontribuzio-prestazioa 2012ko otsailaren 27aren ondoren agortzen bada, diru-laguntzaren eskabidea aurkezteko epea hilabetekoa izango da aipatutako prestazioa azkendu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4. artikulua.– Prozedura eta ebazpena bideratzea.

1.– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzari dagokio prozedura bideratzea, eta Zuzendaritza horrek eskatu ahal izango die interesdunei egindako eskabideari buruzko ebazpena emateko beharrezkotzat hartzen dituen beste dokumentu edo datu argigarri batzuk aurkezteko.

2.– Diru-laguntza lortzeko eskubidea aitortzeko eskumena duen organoa Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusia da.

3.– Eskabideak aurkeztu diren ordenan aztertuko dira eta 196/2010 Errege Dekretuan eta agindu honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak onartuko dira.

4.– Dagokion ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita. Dagokion epea esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe igaro bada, eskabidea administrazioaren isiltasunez baietsi dela ulertu beharko da.

5.– Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke eman duen organoan hilabeteko epean ebazpena jakinarazi den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

6.– Publizitatearen printzipioa betetzeko, eta emateko Ebazpenak esanbidez eta modu indibidualizatuan jakinaraztea bazter utzi gabe, Lanbideren zuzendari nagusiaren Ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, onuradun izan diren pertsonen zerrenda eta bestetik, jasotako zenbatekoak.

5. artikulua.– Diru-laguntzen ordainketa.

1.– Diru-laguntzen ordainketa, diru-laguntza bereziarena nahiz zenbateko gehigarriarena, hilabeteka gauzatuko da. Aurrekoa gorabehera, lehenengo ordainketak, hala badagokio, dagoeneko sorrarazitako hilabeteko aldiak metatuko ditu.

2.– Diru-laguntzaren onuraduna lanean hasten bada, lanean hasten den egunaren aurreko egunera bitarte dagokion zati proportzionala ordainduko da eta egun horretatik aurrera etengo da diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza berriz jasotzeko, 196/2010 Errege Dekretuaren 5.7 artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera, jasotzea baldin badagokio, interesdunak eskabidea aurkeztu beharko du, 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hilabeteko epean, betiere besteren konturako lana azkentzen

denetik edo norberaren konturako jarduera eteten denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, lana azkentzen den edo jarduera eteten den dataren eta eskabide-dataren artean dagoen aldiari dagozkion zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu egingo du.

#### 6. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honetan aipatzen diren laguntzak estaltzera bideratutako baliabide ekonomikoek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak. Hasiera batean aurreikusitako kreditua aldatu ahal izango da indarrean dagoen aurrekontu-legeriarekin bat etorriz. Hasierako kreditua eta izan litezkeen aldaketak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez iragarriko dira.

2.– Eskatutako laguntzak ematea ukatuko da, baldin eta aipatutako laguntzak esleitu behar zaizkion Aurrekontuak bete nahi den helburua lortzeko nahikoa kreditu egokirik ez badu. Horregatik guztiagatik, ekitaldi ekonomiko batean laguntzak emateko ezarritako kreditua agortuz gero, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak egoera horren berri emango du, Ebazpen bidez, eta, ebazpen horretan kreditua noiz agortu den azaldu beharko du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Dagokion ekitaldiko aurrekontu-kredituekin erantzun ezin zaien laguntza berriak emateko eskabideak ondorengo ekitaldiko aurrekontu-kredituei egotzi ahal izango zaizkie, betiere horretarako kreditu egokia eta behar adinakoa baldin badago.

#### 7. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak edo zirkunstantziak aldatzen badira, betiere diru-laguntzaren xedea betetzat eman bada, diru-laguntza emateko Ebazpena aldatu egingo da, baldin eta diru-laguntzaren onuradun izateko otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan eta agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak gordetzen badira.

#### 8. artikulua.– Bateriaezintasunak.

Agindu honetan arautzen den diru-laguntza bateraezina da besteren konturako edo norberaren konturako lanarekin, kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa jasotzearekin, baita erretiro-pentsioa, ezintasun iraunkorraren pentsioa edo baliaezintasun handiko pentsioa jasotzearekin ere.

Halaber, bateraezina da xede eta helburu berarekin onuradunek jaso dezaketen beste edozein laguntza edo diru-laguntza jasotzearekin.

#### 9. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezartzen direnak. Honako honetara ere behartuta egongo dira:

a) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa inskribatuta egotera eta prest egotera beren lanerako gaitasunerako eta gizarte– nahiz lanbide-arloko baldintzetarako egokia den lanpostua onartzeko.

b). lanbide-orientazioko ekintzetan, lanbide-prestakuntzan eta, orokorrean, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak arautzen dituen bestelako enplegu-politika aktiboetan parte hartzera, betiere laneratzea ahalbidetzera bideratuta badaude.

c) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztera diru-laguntza jasotzeko eskubideari eusteko eskatzen diren baldintzei dagokienez gertatzen den aldaketa oro, bereziki besteren konturako edo norberaren konturako lana egiteari, langabezia-prestazioak jasotzeari edo pentsiodun-egoerara igarotzeari buruzkoak.

d) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak prozeduraren edozein fasetan eskatzen dion informazioa eta dokumentazioa ematera, bai eskubidea aitortzeko, bai diru-laguntza jasotzeko eskubideari eusteko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

10. artikulua.– Ez-betetzeak eta diru-laguntzak itzultzea.

1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude agindu honetan aurreikusitako laguntza jaso duten pertsona onuradunak, edo otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan, agindu honetan eta/edo emateko Ebazpenean ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbideren zuzendari nagusiak Ebazpen bat emango du; horren bitartez, ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak gehi diru-laguntza ordaintzen denetik itzultzea egoki dela adosten den arte dagozkion legezko interesak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli behar dizkiola, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien legezko ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da erantzukizunen erregimena.

2.– Ez-betetze partzialen kasuan, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak erabakiko du onuradunak itzuli beharreko zenbatekoa, proportzionaltasunaren printzipioari erantzunez diru-laguntzaren onuradun izateko eta baldintza horri eusteko eskatutako baldintzak bete diren denboraren arabera.

3.– Ez-betetzeen kasuan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Lanbideren zuzendari nagusiak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio egokitze jotako alegazioak aurkez ditzan. Prozedura hasteak, hala badagokio, eten egingo ditu oraindik egin ez diren ordainketak.

b) Alegazioak jaso ondoren edota epe hori alegaziorik aurkeztu gabe igaroz gero, Lanbideren zuzendari nagusiaren Ebazpenaz amaiera emango zaio itzultze-prozedurari. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere urtebeteko epean ebatzi beharko da. Ebazpenak arauren bat ez dela bete adierazten badu, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik hasita bi hilabeteko gehieneko epean dagozkion diru-kopuruak Lanbideri itzuli behar zaizkiola deklaratu da. Epe hori borondatezko aldiko epeztat joko da.

c) Borondatezko aldian itzultzen ez bada, erabakiko da dagozkion izapideei hasiera ematea diru hori premiamendu bidez berreskuratzeke.

11. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak bere fitxategi automatizatueta sartuko ditu agindu honetan aipatzen diren laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak. Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte; horretarako, idazki bat bidali beharko dute hori jakinaraziz Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura (José Atxotegi kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Finantzaketa.

Agindu honetan aipatzen diren diru-laguntzen finantzaketa 2012ko ekitaldian bideratu den zenbatekoa 2.131.527 euro da; zenbateko horretatik 451.300 euro 2012ko gastu-aurrekontuari dagozkio, eta gainerakoa ondorengo ekitaldietako konpromiso-kredituari (2013. urtetik 2024. urtera) dagokio, 3211 - Enplegu programaren kargura, 41. Sekzioa - Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua.

Bigarrena.– Araubide juridikoa.

Agindu honetan aipatzen diren diru-laguntzak emateko kontuan hartzen den araubide juridikoa, bertan aurreikusita ez dagoen orori dagokionez, honako arau hauetan biltzen dena da:

– Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretua.

– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. Kapitulua, eta hura garatzen duten arauak.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa ezar dakioke Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Aginduaren ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,  
MARÍA GEMMA ARÁNZA ZABALETA ARETA.